

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko otsailaren 2a. IX. urtea. 2.353. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Irurako Emusi lantegiko langile ohiek kalte-ordainik ez dutela jaso salatu dute

Adostutako dirurik ez dutela jaso eta lanpostu gabe geratu direla esan dute enpresan lan egiten zuten 65 beharginek; irailean bukatuko zaie langabezi saria

Lantegia erosteko saiakera egin zuen Talleres Arrospidek, eta honek eta lehiaketako administratzaileek hitzartutako akordioak kalte-ordainik gabe utzi dituela azaldu dute 06



Agurtzane Belaunzaran Mozambiken eginitako bidaian ateratako argazki batean. HITZA

Agurtzane Belaunzaran Kazetaria

«Malawin eta Mozambiken izandako esperientzia kontatzen dut 'Afrika minez' kontakizunean»

Mikel Esseryren oroimenezko bidaien kontakizun lehiaketan saritutako istorioa argitaratu diote berrobotarrari 'Mambo Poa 3' liburuan; bi hilabetez izan zen Afrikan eta bidaia «oso bizia» izan zela dio 07

Bilduk, Aralarrek eta EAJk Pello Odriozola preso tolosarra askatzeko eskatu dute osoko bilkuran

Egin Dezagun Bideak eta Lizardi kultur elkarteak aurkeztutako mozioa onartu dute; hondakinei buruz udalean lan batzordea osatzea erabaki dute hiru alderdiek 02

Gaur hasi eta igandean bukatuko dira Tolosako San Blas auzoko jaiak

Bihar izango da San Blas eguna, eta meza nagusia eta gero bedeinkatuko dituzte erroskilak; Peñagarikano eta Mendiluze bertsolariak izango dira igandean 03

Zuhaitz eguna ospatuko dute larunbat goizean, Tolosako Trianguloan

Azoka berezia izango da; aurtun lehen aldiz lurre auzoko Norvegiarren parkean zuhaitz landaketa egingo dute, eta 17 magnolia jarriko dituzte bertan 05

Konfiantzan, Ikastola

	Anosteko Henri Ikastola 943 65 29 32 www.anostekoherrrikastola.net		Laskorain Ikastola (Tolosa) 943 69 71 22 www.laskorainkastola.net
	Irurako Ikastola 943 69 43 74 www.irurakoikastola.net		Tolosako Inmakulada Ikastetxea 943 67 36 29 www.inmakuladatolosa.com
	Jesusen Bihotza Ikastola (Villabona/Zizurkil) 943 69 23 21 www.jesusenbihotzaikastola.com		Urturpe Ikastola (Obarra) 943 67 12 99 www.urturpe.net



TOLOSALDEKO IKASTOLAK

Pello Odriozolaren askatasuna eskatu dute Bilduk, EAJk eta Aralarrek

Tolosako azken osoko bilkuran hartu dute erabakia hiru alderdiek; PSE-EEko zinegotzia abstenitu egin da

Imanol Garcia

Tolosako azken osoko bilkurak eztabaidarako aukera eman zuen, sei mozio aurkeztu baitziren. Horietako batean ia erabateko adostasuna lortu zuten: Bildu, EAJ eta Aralar alderdiek Pello Odriozola preso tolosarraren askatasuna eskatu zuten, Egin Dezagun Bidea ekimenak eta Lizardi kultur elkarteak aurkeztutako mozioarekin bat eginez. PSE-EEko zinegotzia abstenitu egin zen bozketan.

Larunbatean bete zituen Odriozolak 24 urte espetxean. Onartutako testuak zioenez, orain hiru urte eta erdi kalean izan behar zuen. Bilduko Ibai Iriarte alkateak Odriozolak bizi duen egoera «astakeria» dela esan zuen. Euskal presoek «izaera politikoa» dutela gaineratu zuen: «Izaera hori deuseztatu nahi diete, baina inkomunikazioa ezartzen zaie, Espainiako Auzitegi Nazionalan epaitzen dituzte eta gero ez dituzte Martuteneen espetxeratzeko». Besarkada bat bidali zion Odriozolari eta animoak eman zizkion bere familiarri.

EAJko Jokin Azkuek «Pellok etxean egon behar du», esan zuen, eta «beste ahalegin bat» egin behar dela gaineratu zuen egoera politikoa berriari: «Tolosar



Pello Odriozolaren askatasuna eskatzen zuen mozioa onartu zuen udalbatzak azken osoko bilkuran. I. GARCIA



AHT Gelditu elkarlanak elkarretaratzea egin zuen udaletxearen aurrean. I.G.

guztien artean gutxiengo batera iritsi behar gara, eta biktima guztien erreparazioan eragiten saiatu behar gara». Aralarreko Iñaki Irazazabalbeitiak esan zuenez, Odriozolak «giza lege» aske izan behar zuen. Horrez gain, presoak Euskal Herrira ekartzeko «Frantziar pausoak» eman direla esan zuen, eta «orain Espainiak eman behar du pauso hori», gaineratu zuen. PSE-EEko Jose Ignacio Asensiok bere iritzia plazaratu

zuen: «Presoak gerturatzeko garaia da, baina ez dugu ahaztu behar zergatik dagoen Pello Odriozola espetxean; pertsona bat hil-tzeagatik dago bertan».

Bestalde, Asensiok atez ateko sistemari buruz mozioa aurkeztu zuen eta horrek hondakinaren inguruko eztabaida sutsua piztu zuen. Azkenean udal gobernuak kideek eta EAJk bat egin zuten bi puntu zehatzetan. Alde batetik, Tolosaldeko Zabor Mankomuni-

tateak hondakinak kudeatzeko sistema egokienari buruzko azterketa egin dezan eskatzea; bestetik, hondakinaren inguruko lan batzordea osatzea udalean.

Azpiegitura handiak, hizpide

Beste mozioetako bat azpiegitura lan handien inguruan AHT Gelditu! elkarlanak aurkeztutakoa izan zen. Datorren larunbatean Donostian egingo den manifestazioaren harira, azpiegitura horiek (AHT, Pasaia Superportua, erraustegia,...) geldiarazteko eskaria egiten zen, eta mobilizazio horretan parte hartzeko deialdia luzatzen den. Eztabaida bizia piztu zuen gai horrek, eta garbi utzi zuen gai horretan udalbatzako ordezkariak duten ikuspuntua. Bildu eta Aralarreko kideek azpiegitura horiek ordezkatzeko duten «gehiegizko garapen eredu» gaitzetsi zuten, eta mozioari baiezkoa eman zioten. EAJk eta PSE-EEk, bere aldetik, azpiegitura horiek «beharrezkoak» direla

esan zuten eta garapen ekonomikorako «garrantzi handikoak» direla gaineratu zuten. Ondorioz, aurkako bozka eman zuten. Bestalde, osoko bilkura hastearrekin batera, elkarretaratzea egin zuen AHT Gelditu! elkarlanak udal-etxearen aurrean.

Kutxabanken administrazio kontseiluaren inguruko mozioa eztabaidatzerakoan ere hikamika izan zen. Bilduk EAJri «traizio» egitea leporatu zion, PPrekin akordioa egiteagatik administrazio kontseilua osatzeko. Bere aldetik, «Bilduk eta PSE-EEk ordezkari gehiago izateko egindako proposamena» jarri zuen mahai gainean eta osatu berri den administrazio kontseilua «sei hilabete barru» aldatu egingo dela azaldu zuen.

Osoko bilkuran jorratu ziren beste bi mozioak aho batez onartu zituen udalbatzak. Batetik, haur lapurtuen auzian babesa eman zien SOS Haur Lapurtuak eta Anadir elkarteak, eta hainbat erakunderi gaiari buruz duten informazioa elkarbanatzeko eta ikerketetan laguntzeko eskatu zuten. Bestetik, Mariano Raxoiren gobernuak abian jarri duen sektore publikoaren erreformaren aurka azaldu ziren.

Mozioez aparte, beste gai batean ere eztabaida sortu zuen osoko bilkuran. Izan ere, Larramendi auzoko lurperatzearen inguruan, enpresa eraikitzaileek egindako bigarren proposamenari ofizialtasuna eman zitzaion, Bildu eta Aralarren aldeko bozkek. EAJk eta PSE-EEk aurka egin zuten, eta lurperatzea defendatu zuten. Hemendik aurrera, Larramendi auzoaren urbanizazioari buruzko erabakitze prozesuan, bi proiektu izango dira mahai gainean. Alde batetik, hasierako proiektuak zuena, hau da, lurperatzea; eta bestetik, egungo udal gobernuak eta enpresa eraikitzaileek adostu dutena.

Ibai Iriarte • Tolosako alkatea

«Ahalik eta zerbitzu onena emateko izan behar du bikoizketaren eztabaidak»

I. Garcia

Eusko Legebiltzarrean administrazioen arteko bikoizketa lantzeko batzorde bat osatu dute. Aste honetan EAJko hiru lurraldeetako alkateak deitu dituzte bertara joan eta bere iritzia emateko gaiaren inguruan. Gipuzkoatik, Ibai Iriarte Tolosako alkatea izan da.

Zer azaldu duzu batzordean?

Udal askok mahai gainean jarri dutena esan genuen, hau da, badaudela zenbait zerbitzu udalak eskaintzen dituenak, berez aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak

eman behar litzukeenak. Udalak arrazoi batengatik edo bestearengatik ematen dituen zerbitzuak dira, baina askok finantziazio iturria ez dutenak.

Adibiderik eman zenuen?

Bi adibide eman nituen. Alde batetik, lurramendi zaharren egoitza. Bere kudeaketa aldundiak ordaindu beharko luke. Kontzertatuta dago, eta aldundiak dirua ematen du, baina hori ez da nahikoa gastu guztia ordaintzeko, eta beraz, hor sortzen den galera udalak bere gain hartzen du. Azken bederatzit urtetan defizit horrek

1,6 milioi suposatu du. Beste kasua udal euskaltegiarena izan zen. 1983an martxan jarri zen, HABErekin hitzarmena sinatu eta gero. Akordio horretan HABE irakasle kopuru baten gas-ta ordaintzeko konpromisoa hartzen zuen eta urtero-urtero diru kopuru hori txikitzen joan da. Azken bederatzit urteetan 1,69 milioi eurotako defizita suposatu du. Argi geratu zen udalak bere gain zama handia hartzen duela. Herritarrei eman beharreko zerbitzuak dira, baina finantziario falta dago. Defizit horiek estal-

tzea urtez urte zaila egiten zaigula azaldu nuen.

Eta zergatik gertatzen dira horrelakokasuak?

Gizarte zerbitzuetan lege berriak ateratzen dira sarri, eta lege onak izan daitezke, baina gero askotan finantza arloan berregokitzea falta da, hau da, zein administrazio ordaintzen dion nori zerbitzu hori eskaini ahal izateko. Hori salatzeko genuen guk, ezin direla lege berriak atera, horretarako finantziarioa aurrera ateratzen ez den heinean. Batak bestearekin eskutik joan behar du.

Nola ikusten duzu gaur egungo mapa instituzionala?

Eztabaidari ez zaio izan behar bedurrik. Gure nahia izan behar du ahalik eta zerbitzu egokiena ematea herritarrei. Bestalde, mahai gainean jarri nuen Eusko Legebiltzarrean, kontuz ibili behar genuela horrelako gaiak krisi garaian ateratzen direnean. Arazo hau, zenbait zerbitzuen finantziario falta, udalak betidanik izan du. Garai onak izan direnean ez zaio eztabaida honi eutsi, nahiz eta finantziario falta egon. Administrazio publiko guztiek batetik edo bestetik dirua biltzeko arazorik ez dute izan, eta udalak, esaterako, dirua eskuratu dute eraikuntzaren bidez. Beraz, eztabaida hauek ez dira izan behar ikusteko nola gastatu daitekeen diru gutxiago, baizik eta zer egin behar dugun ahalik eta zerbitzu onena emateko.

Linazasoro: «Letek eta biok malenkonia eta ironia elkarbanatzen genuen»

Gipuzkoako Foru Aldundiaren I. Xabier Lete poesia saria irabazi du Karlos Linazasoro idazle tolosarrak

I. Urkizu

Karlos Linazasoro tolosarrak irabazi du, Gipuzkoako Foru Aldundiak iaz sortu zuen Xabier Lete poesia sariaren lehenengo sariketa, *Ezer gehiago behar gabe* lanagatik.

Nazioarteko I. Xabier Lete poesia sariko epaimahaia Igor Estanokonak, Joserra Garziak, Tere Irastorzak, Jose Angel Irigarayk eta Lourdes Otaegik osatu dute, eta Linazasororen lana beste 22 lanen artean aukeratu izan da, saria jasotzeko. Epaimahaiko ki-

deek «poema liburu ederra» dela azaldu dute, eta «ideietan, metaforetan eta adierazteko moduetan aurkikuntza poetiko asko» dituela.

Idazle tolosarrak «ilusioz» jaso du 10.000 euroko ordainsaria: «Pomario nostalgikoa da, eta aldi berean bizi poza ere badu». Bere betiko beldurrak eta kezak izan dira maitasuna, natura eta denboraren iheskortasuna, eta zazpi urtez mamitutako lanean islatu du hori. Hala ere, «gauzak garden esaten, hermetismotik ihes egiten» saiatu dela nabarmendu du: «Jendeak uler dezan nik esan nahi dudana».

Poesia klasikoa landu du liburuan, eta bere sariarekin Lete bera ere pozutuko litzatekeela gaineratu du Karlos Linazasorok: «Malenkonia eta ironia elkarbanatzen genuen».

Hilaren 13an jarriko dituzte salgai zezenetako sarrerak

Aurten ezingo da zezen plazara sarrerarik gabe sartu, segurtasuna bermatzeko; txarangak bakarrik sartuko dira

I. Urkizu

Inauterietako zezen festetarako sarrerak aurrez erosteko aukera izango da datorren otsailaren 13tik 15era bitarte.

Leidorreko leihatilan egin ahal izango da erosketak, eta gehienez ere, 15 sarrera erosi ahal izango ditu herritar bakoitzak, eguneko. Horrela beraz, otsailaren 13an 16:00etatik 20:00etara bitarte zabalduko dute Leidorreko leihatila. Otsailaren 14an eta 15ean, berriz, goizez nahiz arratsaldean salduko dituzte zezen plazarako sarrerak: 09:00etatik 13:00era, eta 16:00etatik 20:00etara bitarte joan ahal izango da.

Ikuskizun egunetan ere aukera Aipatzekoa da, halaber, ikuskizun egunetan ere sarrerak erosteko aukera izango dela zezen pla-

zan bertan, urteroko moduan, 11:00etatik 13:00era bitarte, eta 15:30etik aurrera.

Iazko Inauterietan udalak segurtasun neurri bereziak hartu zituen, zezen plazako jende kopurua zorrotz neurtze aldera. Hori zela eta, ikusleak hondarretik eserleketuara ez igotzeko langileak aritu ziren.

Neurri horrek, Inauterietan biltzen den jendetzarako, eragirik izan ezenez, aurten, udalak zorrotzago jokatzeara erabaki du, segurtasuna bermatzeko. Horrela beraz, zenze plazan ezingo du inork hondarretatik sartu, txarangetako kideak ez badira; ezta salto egitera ere. Zezentxoan aurrean korri egin nahi dutenek, berriz, horretara bereziki bideratuko sarrera eskuratu beharko dute aurrez.

●tolosa@hitza.info

Gaurko txupinazoarekin hasiko dira San Blas jaiak



Urtero bezala, aizkolariak izango dira igande eguerdian. I. URKIZU

Bihar izango da egunik nabarmenena, meza nagusiarekin eta bertako produktuen bedeinkapenarekin

Itzea Urkizu

Ostiralean San Blas eguna ospatuko dute Tolosako San Blas auzoko baselizan, baina gaur iluntzean hasiko dira jaiak. 18:00etan txupinazoa egingo dute, eta jarraian disko festa izango da.

San Blas jaietako egunik nabarmenena, orde, bihar izango da. 11:00etan meza nagusia egingo dute, eta hain tradiziozkoa den bertako produktuen bedeinkatzea egingo dute. 12:30ean, berriz, eta eguraldiak laguntzen badie, toka lehiaketa izango da, bai auzotarrentzat, eta baita jaiak antolatzen dituzten Emendek elkarte-

ko kideentzat ere. Arratsaldean, berriz, Elustondo anai-arrebak ariko dira trikitia joaz, 18:00etatik 21:30era.

Larunbatean, otsailaren 4an, haurrentzako jolasak egingo dituzte 12:00etan. Arratsaldean toka txapelketa izango da berriz, eta 18:30etik 21:30era disko festa izango da.

Otsailaren 5a izango da San Blas jaien azken eguna. Goizean goiz, 09:30ean, diana izango da Konpenezinak txarangaren eskutik. 11:00etan, berriz, meza izango da, auzoko eta elkarteak zendutako bazkideen alde. Eguerdian, Amaroako dantzariak euren saioa eskainiko dute; Unai Otaño eta Iñaki Azurmendi aizkolariak, eta Peñagarikano eta Mendiluz bertsolariak ariko dira jarraian, bazkaldu aurretik.

↓ San Blas jaiak 2012

OTSAILAK 2, OSTEGUNA

- 18:00. Txupinazoa, jaietako hasiera emateko.
- 18:30etik 21:30era. Disko festa.

OTSAILAK 3, OSTIRALA

- 11:00. San Blas eguneko meza nagusia. Bertako produktuen bedeinkapena egingo dute, urteroko moduan.
- 12:30. Toka lehiaketa, auzokentzat eta Emendek elkarteak kideentzat.
- 18:00etatik 21:30era. Elustondo anai-arrebak trikitilariak.

OTSAILAK 4, LARUNBATA

- 12:00. Urte eta gaztetxoentzako jolasak.
- 16:00. Gipuzkoa mailako toka lehiaketa.
- 18:30etik 21:30era. Disko festa.

OTSAILAK 5, IGANDEA

- 09:30. Diana Konpenezinak txarangarekin.
- 11:00. Elizkizuna, auzoko eta Emendek elkarteak zendutako kideen alde.
- 12:00. Amaroako dantza taldearen dantza saioa.
- 12:30. Unai Otaño eta Iñaki Azurmendi aizkolariak.
- 13:00. Anjel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluz bertsolariak.
- 18:00. Anjel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluzeren bigarren saioa.
- 18:30etik 21:00etara. Elustondo anai-arrebak.

Arratsaldean, azkenik, bertsolarien bigarren saioarekin eta trikitilariarekin amaituko dira San Blas auzoko jaiak.

Iragarki laburrak


SALGAI

- **Etxebizitza.** Leitzan etxebizitza salgai. Aukera ezinhobea, Lehendabiziko pisua, oso egonean. Bizitzera sartzeko prestatu. 90 m². Sukaldea, bainugela, hiru logela handi eta trastelekua. Igogailua jarri berria eta berogailuarekin. Interesatuek, deitu 649 208310 telefono zenbakira.
- **Denda.** Frutategia, arrandegia eta urdaitegia dituen denda salgai ibarran. Aukera bikaina da.

Interesatuek, deitu 636 143514 telefono zenbakira.

ALOKAGAI

- **Etxebizitza.** Tolosako Bera-zubi auzoan, 3 logelako etxebizitza alokatzen da. Interesatuek, deitu 628 16 37 22 telefono zenbakira.
- **Etxebizitza.** Etxebizitza alokagai Alegiako San Juan kalean; 3 logela, terraza eta bi trasteroekin. Interesatuek, deitu 626 867636 telefono zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Agate Deuna bezpera egunean etxe guztiak kantuz alaituko dituzte

Etzi izango da ospakizuna, eta eskualdeko hainbat herritan makilak gogoz astinduko dituzte

Enertiz Maiz

Larunbatean Agate Deuna bezpera ospatuko dute eskualdeko hainbat herritan. Makilak eskuan hartu, eta gogor astinduz kantuan ibiliko dira baserri eta kaleak alaituz. Ohitura zaharrari jarraipena ematen diote urtetik urtera, etxez etxe ibili diren talde edo eragileak. Herritar guztiak animatu ohi dira gainera, kantuan ibiltzera; eskoletako ikasle eta irakaseak, herritar taldeak, abesbatzako kideak, elkartetako bazkideak... Horietako askok gainera herritarrei dei egiten diete santa eskean parte hartzeko

Eguraldi iragarpenak betetzen badira, oinetako eta eskularru onak jantzi, eta eztaerriak ongi berotuta ater beharko dira kalera,



18:00etan hasita, Txintxarri abesbatza eta Zazpi Astoren Gainean bertso eskolakoak elkarrekin ibiliko dira. T. GOMEZ

hotzari aurre egiteko. Baina Agate Deunaren ohiko abesti eta koplez gain, bat-bateko bertsoak ere izango dira Alegian edo Leitzan.

Kantuan behar bezala aritzeko, entseguak egitea ere beharrezkoa izaten da, eta dagoeneko he-

rriri batzuk prest badaude ere, Adunan gaur, 18:30ean, egingo dute entsegu kultur aretoan. Herritar guztiak gonbidatuta daude parte hartzera.

Alegian, berriz, entsegu ireki eta labor bat egingo dute, bihar,

21:00etan, kultur etxean. Herritarrek ekimenarekin bat egitera animatu nahi dituzte bertsolariak eta abesbatzakoak.

Baserriz baserri edo kalez kale makilen kolpeak izango dira nagusi, etzi.

Abel Barriolak 2016ra arte luzatu du Asperekin duen hitzarmena

Erredakzioa Leitza

Abel Barriola Leitzako pilotariak 2016. urtera arte luzatu du Aspe enpresarekin zuen hitzarmena. Aurtengo martxoa bitartean zuen hitzarmena sinatuta, eta «erraza izan da lan hitzarmena lotzea», azaldu zuen.

Eibarko enpresak eta 34 urteko atzelariak, azkar lortu dute adostasuna, eta pilotaria «Asperekin lortutako akordioaren ondoren, izugarri pozik nago».

Maila ona ematen ari da, eta lasoi onean dago. Etorkizunerako, Aspe atzelari garrantzitsuetako bat lotu du. Ia hamalau urte beteiko ditu profesioletan dabilela. Txapelketa asko jokatu ditu, eta bere palmarena ere ez da nolana hahikoa.

→ Laburrak

↓ Santa Ageda bezperako egitaraua

ADUNA

■ **16:00.** Guztiak elkartu, eta 21:00ak bitarte kantuan ibiliko dira. Eguna Zabala sagardotegian eginez bukatuko dute. Bildutako dirua Saharara bidaliko dute.

ALBIZTUR

■ **10:30.** Haurrak eta gurasoak kantuan aterako dira egun guztian zehar. Dirua eskolako beharretarako izango da.

ALEGIA

■ **18:00.** Txintxarri abesbatza eta Zazpi Astoren Gainean bertso taldea santa eskean kantari ibiliko dira, Larraitz auzotik hasita. Plazan bukatuko dute, eta herritar guztiei dei egiten diete

eurekin batera santa eskean ibili daitezten. Abesbatzakoek betiko doinua kantatuko dute herritarrekin batera eta bertsolariak koplak eta bertsoak botako dituzte bat batean.

ANOETA

■ **15:30.** Herritar talde batek antolatuta plazan elkartuko dira eta handik baserrietara joango dira santa eskean. Baserrietako ibilbidea amaituta, 18:00etan plazan elkartuko dira berriz, kalez kale ibiltzeko. Herritar guztiei dei egiten diete santa eskean parte hartzera.

ASTEASU

Herriko eskolako haurrak goizean etxez etxe ibiliko dira.
■ **14:30.** Euskal preso eta ihes-

lariet laguntzeko dirua bilduko duen taldea plazan elkartuko da.

■ **19:00.** Abesbatza eta trikitilarien taldea aterako da Elizmenditik.

BIDEGOIAN

■ **Arratsaldez.** laz bezala Agate Deuna bezperako koplak etxez etxe kantatzen ibiliko dira. Kantuan ibilitakoek, afariarekin emango die amaiera egunari.

IBARRA

■ **10:00.** San Bartolome plaza-tik abiatuko dira, ospela aldera. Eguerdian Xepla elkarteak bazkalduko dute indarrak hartzeko, eta 17:00etan berriz plaza-tik hasiko dira Izaskun aldera. Hauspoa elkarteak herritar guztiak animatu nahi ditu.

IKAZTEGIETA

■ **Arratsaldez.** Urteroko ohiturari jarraituz, herriko emakumeak abesten ibiliko dira. Lehenik baserri baserri ariko dira kantuan, eta gero herrigunetik pasako dira. Eguna sagardotegian bukatuko dute afari eder batekin.

LEITZA

■ **18:00.** Urtero bezala, plazatik abiatuta herrian barrena koplak kantuan ibiliko dira. Bertako musikariak eta bertsolariak laguntzarekin buelta egingakoan, karrapean mokadu jatea ere izanen da; zintzurra busti eta estamoari goxagarriren bat emateko.

TOLOSA

■ **18:00.** Lizardi elkarteak beraien egoitzatik aterako dira herriko kaleetan zehar kantuan aritzeko.

ZIZURKIL

■ **17:00.** San Millan eskolako haur eta gurasoak kantari aterako dira 17:00ak aldera plaza-tik. Auzo eta kaleetatik ibiliko dira, eta ibilbidea 20:00ak aldera bukatuko dute afari-merienda egiteko. Biltzen duten dirua El Salvadorra bideratuko dute.

Dantza-Soka Egunerako entsegu orokorrak daude

ANOETA » Dantza-Soka Eguna hilaren 11n ospatuko dute, Anoetan. Entsegu orokorrak egiten ari dira, eta bihar, 19:30ean, eta asteazkenean, hilak 8, 19:00etan, frontoian izango dira. Garrantzitsua dela entsegu orokorretan parte hartzea, eta egunean parte hartu nahi dutenei dei egiten zaie bertara joateko. Parte hartzeko zerrendak Itzuli tabernan daude jarrita, eta apuntatzeko epea hilaren 5na bukatuko da.

Mikel Goñiren aurka ariko dira Errazkin eta Urruzola

IBARRA » Hilaren 11n, larunbatean, Mikel Goñi pilotaria Iñaki Errazkin eta Julen Urruzola bikotearen aurka ariko da. Pilota partida 18:00etan hasiko da, eta Belabietan pilotalekuan izango da. Sarrerak salgai jarri dituzte Ibarako Zubiaurre eta Karlatz tabernetan, eta Asteasuko Iturriondon.

Inauterietan hasiera emango diete larunbatean

LIZARTZA » Nahiz eta hurrengo asteburuan izan ekitaldi nagusienak, etzi emango diete hasiera Inauterietan. 12:00etan gibela janez hasiko dira, eta udal ordezkariak eta txekorraldeak bukatuko dute afari-merienda egiteko. Biltzen duten dirua El Salvadorra bideratuko dute.



ESKOLA TXIKIAK:

ABALTZISKETA	ELGETA
ADUNA	GABIRIA
AIA-ANDATZA	EREÑOZU
AIZARNAZABAL	IKAZTEGIETA
ALBIZTUR	ITSASONDO
ALKIZA	LIZARTZA
ALTZO	OLABERRIA
ANGIOZAR	AGINAGA
BERROBI	ZERAIN
BIDEGOIAN	ARROA
IGELDO	AIZARNA
ZUBIETA	ZIZURKIL
ERREZIL	OIKIA

Norvegiarren parkean 17 magnolia landatuko dituzte Zuhaitz eguna dela eta

Larunbat goizean azoka berezia izango da Tolosan, eta Euskal Herriko 16 mintegiek parte hartuko dute

I. Urkizu

Iurre auzoko Norvegiarren parkea izango da aurten Zuhaitz eguneko guneetako bat, eta hori dela eta, lore horidun 17 magnolia landatuko dituzte larunbat goizean. Horrez gain, urteroko azoka berezia izango da Trianguloa plaza.

08:00etan lehenengo postuak jartzen hasiko dira, eta 14:00ak bitarte izango da zuhaitzak, zuhaixkak, bonsaiak nahiz landareak ikusteko aukera. Iaz bezala, landare ekologikoak ere eskura-

garri izango dira azokan.

Euskal Herri osoko hamasei mintegiek parte hartuko dute larunbateko Zuhaitz eguneko azokan, eta udalak aipamen berezia egin nahi izan die, larunbatero Atadi kalean jartzen diren ondoko mintegiei: Donostiako Agirretxe mintegia, Zegamako Arakama mintegia, Ataungo Dorronsoro mintegia, Albizturgo Lasa mintegia eta Anoetako Urkizu mintegia. Larunbat honetan ere Tolosan izango dira, baina fruta arbolak, baso landareak, apaingarriak, zuhaitzak eta zuhaixkak ekarriko dituzte, eta ezohiko txokoetan jarriko dituzte beren postuak.

Aipaturiko mintegiez gain, ordea, beste batzuk ere parte hartuko dute: Aranburu (Aginaga), Areitio (Zaldibar), Belar (Zaldibar), Blasenea (Zarautz), Chava-

rri (Alfaro), El montañas (Tafalla), Guillen (Pueyo), Islaza (Pasai San Pedro), Magalarte (Zamudio), Victor Lasa y otra CB (Albiztur), Irun Bonsai (Irun) eta Txomin Bilbao (Kortezubi).

Azkenik, Tolosako zuhaitzak eta landaredia ezagutzeko helburuz, Trianguloan bertan informazio puntua jarriko du udalak goiz osoan zehar.

Gazteak naturara hurbilduz

Azokaz gain, udaleko Ingurumen sailak, Lehen Hezkuntzako ikasleentzako jarduera prestatu du, Ingurumen eskolaren laguntzaz.

Horrela beraz, goizean, gymkana egingo dute neska-mutiek, lurre auzoan: «Ikasleek zentzumenekin esperimintatuko dute, hitzekin jolastu edo mimikaren bidez baso bihurtu». Eguerdia bitarte ariko dira jolasean.

Irudia



ZUZENDARITZA ALDAKETA

Pasa den astelehenean, merkatarien Tolosa & Co elkartearen batzar orokorra egin zuen, eta zuzendaritza aldatu zuten, besteak beste. Fermin Montilla Marijuan izango da lehendakari berria, eta zuzendaritza batzordeko gainontzeko kideak Juanjo Ruiz, Leire Usandizaga, Josean Orus, Ixabel Mandiola eta Mila Corral izango dira. Batzarraren, 2012. urterako proposatutako erronka berriak ere izan ziren hizpide. KLSK

Lapurretak izan dira Tolosan asteartetik asteazkenerako gauean

R. Calvo

Asteartetik asteazkenerako gauean hiru lapurreta izan ziren Tolosan, horietako bat TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO egoitzan. Egunkarian sartzeko ateko kristala puskatu zuten.

Iturri ofizialek esandakoaren arabera, hala ere, ez zen lapurreta bakarra izan, izan ere, beste bi tokitan ere lapurtu dute; Berazubiko estadioan, eta Zabalarreta parkeko behealde batean. Hiruetan ateko kristala puskatuta sartu ziren lapurtzera. Ertzaintzak, oraindik, ez du datu gehiagorik, eta lapurretak ikertzen ari da.

Gutuna

Pausoka

Tolosako bi elkarte gastronomikok, bi emakume onartu dituzte bazkide bezala, azken asteotan. Tolosako Udaleko parekidetasun zinegotziak, Miren Urkolak, gutuna bidali die honen harira, herriko elkarte guztiei.

Egun, historiaren irudi nahiko nahasia daukagu. Historiaz mintzatzen den edozein liburu hartuta uler dezakegu hori. Normalean, *Historia* idazterakoan gertakizun handiak jasotzen dira: gudak eta gerrateak, itunak, erakunde desberdinen sorrerak... Oso gutxitan idazten da historiaren beste gertakizunei buruz, gertakizun txikiak buruz.

Adituen arabera, gure oroiemen kolektiboa gordetzerakoan beharrezkoak dira beste metodologia eta paradigma batzuk. Garrantzitsua da, tesuinguru txikietan gertatutako gauza txikiak jasotzea, horiek direla mundua aldatzen dutenak.

Tolosan orain dela gutxi, gertakizun bi izan ditugu. Bi gauza, nahiko txikiak, eta aldi berean oso handiak. Nahiz eta historiaren narrazio ofizialetatik kanpo mantenduko diren, ez dira galduko.

Hementxe gorde nahi ditugu; irakurle eta protagonisten oroiemen eta garunean idatzita utziko dugu. Tolosako Kasino eta San Esteban herri elkarteek, bi emakume onartu berri dituzte bazkide bezala. Isil-isilik egin dute, inor ez esan gabe. Baina Tolosako Udalalari txori batek eman dio horren berri, eta berdintasuna eta parekidetasuna udal honen helburu nagusietariko bat denez, ezin utzi oharkean pasatzen.

Tolosako Udalak eta bertan lanean dihardugun pertsonak, eskerrak eman nahi dizkiegu gertakari historiko honen protagonistei eta Tolosako herriari. Agian historia liburu handietan ez da gordeko 2011. urtean Tolosan gertatutakoa, baina gure herriarentzako izugarriko aurrera pauso bat izan da eta



guk ondo erregistratuko dugu datu hau, gehien maite izan ditugun beste gertakariekin batera.

Denok ezagutzen ditugu beste herri batzuetan genero kontuek ekarri dizkieten iskanbilak eta gatazkak. Oso gutxitan jabetzen gara gure herrietan jorratzen ditugun ohituren egituretan, generoak duen talakaz. Berdintasun kontuetan aldatetarik bideratu nahi direnean, garrantzitsuenak gertakari txiki horiek izaten dira.

Pixkanaka erortzen diren euri tantak bezala, errekaen indarra hartzen dutelako. Herria osatzen duen pertsona bakoitzak du ardua, horregatik, gutxi batzuek emandako pausoak, eredu indartsuak sor ditzakete. Hementxe ditugu Tolosa herriaren lehenengotarik pausoak; ez lehenengoak, lehenago ere arlo honetan pausoak eman dituztenak bai baitaude eta aurrerantzean ere emango dituztenak izango diren esperantza baitugu.

Orain artekoak euri tanta oso txikiak izan dira, berdintasunaren zelaian dagoen lehorteari aurre egiteko nahikoak izan ez direnak; baina espero dezagun aurrerantzean euri horiek zaparrada bihurtzea, etenik gabeko bidea izatea da.

Pausoz pauso osatzen den bide kolektibo horietako bat, eta euri tantak bezala, bata bestearen atzean etortzea.

Eskerrak berriro ere denoi, ardua hartzeagatik eta herritarrek heldua izateagatik. Mila esker egin duzuenagatik.

Bide batez, elkarte guztiak gonbidatzen zaituztegu, berriro martxan jarriko dugun lanketaren hurrengo fasean parte hartzera. Denon lana beharrezkoa baita berdintasuna lortzeko bidean.

■ **Miren Urkola**, Tolosako Udaleko Parekidetasun zinegotzia.

VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

Euskalduna, Denona eta Denontzat

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA



Fleming Ikastetxea.

Haur Hezkuntza Auzoan (3-6 urte)
Lehen Hezkuntza Auzoan (6-12 urte)
Tel.: 948 69 35 12 • Tel./Fax: 948 69 1413
012277@hezkuntza.net

Matrikulazio epea:
urtarrilaren 30etik otsailaren 10era



Enribea Ikastetxea.

Denrigonako Bigarren Hezkuntza Auzoan (12-16 urte)
Tel./Fax: 948 69 37 33
012992@hezkuntza.net
www.enribea.ea

HAUR TXOKOA ZERBITZU BERRIA

7:30etatik 9:00tara
16:00atik 17:00tara



Irurako Emusi zenaren aurrean elkartzen dira bertako langile ohiak astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan, elkarretaratzean. A. IMAZ

«Ez lanik eta ezta kalte-ordainik»

Emusiko langile ohiek lehiaketako administratzaileekin eta Talleres Arrospideko ordezkariekin bildu nahi dute

2011ko martxoan kitapen egoera sartu zen Irurako lantegia, administratzaileen eskutik

Asier Imaz Irura

Irurako Emusiko langileek enpresako arduradunekin eta Talleres Arrospideko ordezkariekin bilera bat egin nahi dute. Lantegia itxi ondoren, kale gorrian aurkitzen dira. Emusiko langileek hiru galdera dituzte egiteko, eta hauen erantzuna jakin nahi dute: «Zer gertatu da 40 lanposturekin? Zer gertatu da adostutako kalte-ordainekin? Eta zergatik sentitzen gara engainaturik?».

Langileek, makina eta ekipa mekanikoak eraikitzen zizutzen Iruran. Lan hori egiteko aukera guztiak amaitu zirenean, enpresa aurrean elkartzen hasi ziren aste-oro; 2011ko azaroaren 28az gaurdaino astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan. Emusi zenaren aurrean, elkarretaratzea egiten dute, lanik eta «adostutako» kalte-ordainik gabe utzi dituztela salatzen.

Kartelak, esku-orriak, prentsa... Bizi duten egoera salatzen eta gizarteratzekeoerabakia hartu dute.

«Erantzunaren zain»

Kapitalismoaren krisia agerian gelditzen hasi zenean, Emusin lan erregulazio txostenekin hasi ziren. Langileen esanetan, «gero, soldatakat atzeratzen hasi ziren, eta 2010eko irailean, lehiaketan sartu zen enpresa, hau da, hartze-kodunen lehiaketan».

Maldan beherako bide hau, duela bi urte egonkortu zen, beti ere okerreanean; honela kontatzen dute Emusiko langileek: «Hainbat hilabete lan erregulazioan egon ondoren, jarduerarekin jarraitzea ezinezkoa bihurtu zen. Lehiaketaren administratzaileek langile guztien lan kontratuak etetea erabaki zuten, eta lantegia likidazioan sartu zen 2011ko martxoan».

Une horretan, langileek dena beltz ikusten zuten, eta eskaintza onartzea erabaki zuten: «Irtenbiderik ez genuen ikusten, eta urteko 30 eguneko kalte-ordaina adostu genuen enpresa zuzentzen ari ziren administratzaileekin. Hauek, aldi berean, Emusi erosteko eskaintzaren bat izan ezker, langileen ordezkariari informazioa emateko konpromisoa hartu zuten».

Tarte horretan, Talleres Arrospide lantegiko nagusiek eskaintza bat egin zutela diote langileek: «Emusi erosteko zazpi milioi euro jartzeko prest agertu ziren. Diru horrekin, gure kalte-ordainak eta hartze-kodunen zor guztia ordaintzen zenez, langileek eskaintza onartzea erabaki genuen». Talleres Arrospidetik, ordea, baldintza bat jarri zutela diote. «Egin beharreko paperak egin bitartean, lanean hastea nahi zuten, bezeroak ez galtzeko helburuarekin».

Hau ez zitzaion gustatu Gizarte Segurantzari: «Enpresa jarraitkortasun egoera batean egon zitekeela mehatxatu zuen, eta Talleres Arrospide atzera bota zen», diote langileek.

Emusi likidazioan sartu zenean, Talleres Arrospide berriro agertu zen. Kasu honetan, bere eskaintza «4,3 milioi eurokoa»

izan zen. Langileek azaldu duteenez, 40 lanpostu berri sortzeko proiektua aurreikusten zuten eskaintza horrek: «Administratzaileek onartzea erabaki zuten,

«Zer gertatu da Talleres Arrospide sortu behar zituen 40 lanposturekin?»

«Astero, hiru egunez, enpresaren aurrean elkarretaratzean»

«Aurten amaituko zaigu langabezi saria; izugarritzko ezintasun egoeran gaude»

nahiz eta jakin adostutako kalte-ordainak ordaintzeko nahikoa diru ez zela. Hori dena gertatzen ari zen bitartean, langileok aurrez jakin bagenekien bezala, Euskal Forjinek Emusiren pabiloi erdia erosi zuen».

Anoetako Talleres Arrospide eta konkurtsoko administratzaileen akordioak, lanik eta kalte-ordainik gabe utzi dituztela salatu dute Emusiko langileek: «Fogatsatik, Soldatak Bermatzeko Fun-

tsatik, urteko hogeita egun jaso ditugu, hau da, adostutakoaren %40a bakarrik».

Egoera honen aurrean Emusiko langileek ondorengo galderak egiten dituzte: «Lehiaketaren administratzaileek zergatik onartu zuten eskaintza hura, ez bazituen langileen kalte-ordainak estaltzen? Talleres Arrospidek zergatik egin zuen hain eskaintza baxua administratzaileekin genuen akordioaren berri bazutenean? Non daude sortu behar ziren 40 lanpostuak?».

Galdera hauen erantzuna jasotzeko, Irurako lantegiko langileek bilera bat egin nahi dute administratzaileekin eta Talleres Arrospideko ordezkariekin. Hasi batean, lehiaketako administratzaileekin elkartzeak ziren, baina langileen esanetan, atzera bota ziren: «Euren aholkulariekin hitz egin ondoren, gurekin inongo zorrik ez zutela esan zituzten, eta bilera ez egitea erabaki zuten».

Emusin 65 langilek egiten zuten lan. Lanik gabe jarraitzen dutenei, aurtengo irailean amaituko zaie langabezia saria. Izugarritzko ezintasuna dutela diote, «adostutako kalte-ordainik eta lanposturik gabe gelditu garela».

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean

liburua erosteko aukera duzue:

- **Liburudendetan:** Prezioa 21 € eta harpidedun txartelarekin 18 €
Anoetan: Kuku-lore liburudendan,
Ibarran: Lurdes liburudendan,
Tolosan: Aramburu liburudendan, Elkar liburudendan, eta Babel liburudendan,
Villabonan: Kazetaria liburudendan,
- **HITZAko bulegoan:** Prezioa 18 € eta harpidedunek 15 €

• Eskaintza berezia

HITZAren egoitzara etortzean, '1936ko Gerrako Oroitzapenak' liburua ere eskuratu ahal izango duzue: prezioa 10 € eta harpidedunek 8 €. Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean + 1936ko Gerrako Oroitzapenak: bi liburuak, 25 €, harpidedunek 20 €.



Agurtzane Belaunzarán ◉ **Kazetaria**

Mikel Esseryren oroimenezko bidaiaren kontakizun lehiaketan saritua izan da berrobitarraren lana; 'Mambo Poa 3' liburuan argitaratu dute berea, beste 24 kontakizunekin batera.

«Bidaiak biziak izateko ez dute zertan atzerrian izan behar»

Iñigo Terradillos Berrobi

Bidaiatzea oso gustuko du Agurtzane Belaunzarának. Baita bidaietan bizitako paperean kontatzea ere. Eta eginkizun horretan trebea dela esan daiteke, *Berria* egunkariak antolatzen duen bidaiaren kontakizun lehiaketan lehen saria eman baitzuen 2009an, eta bigarren saria 2010ean. Mikel Esseryren oroimenezko bidaiaren kontakizun lehiaketan aurkeztu zen pasa den urtean estreinakoz, eta hor ere saritua izan da bere lana. 89 lagunek hartu dute parte lehiaketaren azken edizioan, eta epaimahaiaren ustez Esseryren bidaia filosofiarekin gehien bat egin duten 25 kontakizunekin *Mambo Poa 3* liburua osatu dute. Kontakizun horien artean abenturazale berrobitarrarena dago.

Zein izan da lehiaketara aurkeztu duzun kontakizuna?

Afrika minez. Hitz joko bat da Afrika minez bizi delako, eta aldi berean, Afrikak maitemintzen duelako. Malawin eta Mozambik 2010ean bizitako esperientzia kontatzen dut kontakizun honetan. Bi hilabetez izan nintzen bertan. Bidaia osoa garraibide publikoa erabilia egin genuen, uneoro afrikarrekin egon ginen, elkar ezagutzen eta eurekin erlazionatzen. Oso biziak izan zen, eta hori guztia kontatzen dut.

Hori da, hain zuzen irabazi berri duzun lehiaketaren filosofia, ezta?

Mikel Essery bidai gida zen. Per-tsonengana gerturatu, eta kultur aniztasuna ezagutzeko irrika zuen. Orain dela lau urte hil zuten Yemenen atentatu batean, eta ordutik antolatzen dute bere ome-



HITZA

nezko lehiaketa hau. Lehiaketaren helburua bere filosofiarekin bat egiten duten kontakizunak saritzea da. Edonork har dezake parte, eta bidaiak edozein era eta lekutakoak izan daitezke. Afrikan nire bidaiaren moduan, edota Euskal Herrian bertan, saritua izan den Leitzaranen inguruko bidaia bezala. Bidaiak intentsoa izateko ez baitute zertan atzerrian izan behar. Kasu honetan, lehiaketaren irabazlea Lili Villanueva argentinarra izan da. Bere *La llave del paraíso* izeneko lanean Iranen egindako bidaia kontatzen du.

Zer sentitu zenuen zure kontakizuna aukeratu izan zela esan zizutenean?

Poza. Oso sari polita da zuk idatzitako zerbait liburu batean argita-

ratzea. Bizitzan egin beharreko gauzatariko bat liburu bat idaztea omen da, eta hori behintzat egin dut. [kar, kar]

Bidaiatzen ari zarenean beti idazten al duzu?

Kazetaria naiz, eta ez dakit horregatik izango den, baina egunero-koa idazteko ohitura handia dut

«Oso garrantzitsua da niretzat bidaiatzen duzun lurraldeko hizkuntza jakitea»

bidaiatzen ari naizenean. Agian ez dut egunero idazten, baina bai maiztasun batekin. Bidaia horretan bizitakoak gordeta geratzeko eta geroago oroitzeko balio dit. Argazkiekin batera, hauek ere

oso baliagarriak baitira horretarako.

Nora egingo duzu hurrengo bidaia?

Oraindik ez dakit ziur. Asko bidaiatu dut, baina leku asko falta zaizkit ezagutzeko. Esaterako, ez Ozeanian ez eta Asian ez naiz izan. Agian hurrengo urtean Asiara joango naiz. Hegoamerika eta Afrika ikaragarri gustatzen zaizkit. Asiaren kasuan, hizkuntza da nolabaiteko oztopo edo traba. Niretzat oso garrantzitsua da bidaiatzen ari naizen lurraldeko jendearekin hitz egitea, eta horregatik funtsezkoa da bertako hizkuntza jakitea. Beraz, nire ingeles apalarekin moldatu beharko dut Asian. Probatu egin nahi dut, eta orduan idatziko dut bertan bizitakoaren kontakizuna.

◉ ibarraldea@hitza.info

Plazaolako naturbidearen etorkizuneko proiektua, Fitur azokan

Nafarroako beste naturbideekin eta Donostiarekin lotu nahi dute; 44 kilometro ditu gaur egun

I. Terradillos Leitza

Madriken egiten den Fitur Turismo Nazioarteko Azokan, Nafarroa Eguna ospatu zen, eta bertan Plazaolako natur bidearen etorkizuneko proiektuei buruz hitz egin zuten erakundeko ordezkariak, hau da, Leitzako alkateordea den Aitor Etxarrik eta bere kudeatzailea den Maitena Ezkutarik. Hiru ildo nagusi aipatu zituzten, Nafarroako beste natur bideekin lotzea, Gipuzkoako hiriburuarekin lotzea eta, azkenik, Nafarroako natur bideak Europan sustatzea.

Egun, Plazaolan egindako azken zatiari esker, Mugiro eta Andoain artean etengabe ibil daitezkeen 44 kilometro daude. Garatzen ari diren proiektuei dagokienez, Mugiro eta Irurtzun artean dagoen Imozko zatiaren lanak egiten ari dira. 9 kilometro horiek egiteko 1.400.000 euro baino gehiago erabiliko dira.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak 2012rako aurreikusitako laguntzarekin, Irurtzun eta Iruñeako arteko zatia desjabetzeko espedienteak hasteko asmoa dute. Partzuergoak (UPS) Udalez gaindiko Plan Sektorialeko tramiteak egin ditu Irurtzun, Iza, Berriobeiti eta Berriozarko udalen laguntzarekin, eta 2010ean onetsi zuten. Iruñeko Udalak alegazio bat aurkeztu zuen eskatzeko haien barrutia ere proiektuan sar dadin. Lur baztuz behar dira etorkizun hurbilean Iruñea eta Donostia batuko lukeen 22 kilometroko proiektu handinahi hau egin ahal izateko.

◉ leitzaldea@hitza.info

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



GOIZA	LAINTUTUA
ARRATSALDEA	LAINTUTUA
BEROENA	-2°
HOTZENA	-8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

■ **Villabona.** Matrikulazio garaia dela eta Fleming ikastetxeko Haur Hezkuntzako eraikinean, Arroan, ate irekiak jardunaldia egingo dute gaur; 17:00etan euskaraz izango da, eta 18:00etan gazteleraz. 2-3 urte-etako geletan matrikulatu behar duten gurasoei zuzendutako jardunaldia da, eta bertan hezkuntza proiektuaren inguruko informazioa, zein behar beste datuak jasotzeko aukera izango da.

■ **Tolosa.** Pello Odriozola eskal presoaren etxeratzea eskatzeko elkarretaratzea gaur, 19:30ean Trianguloa plazan. Odriozola preso tolosarak espetxean 24 urte bete berri ditu, eta pasa den larunbatean lagun eta senideek beren elkartasuna azaldu zioten Tolosan.

■ **Ibarra.** Uzturpe ikastolaren kultur astearen barruan gaur, 14:30ean elkartasun kilometroa egingo dute ikasleek udaleko ordezkariekin batera.

■ **Tolosa.** Samaniego ikastetxek matrikulazio kanpaina abiarazi du, eta gaur 16:45ean Haur Hezkuntzako eraikinean, ate irekien jardunaldia egingo du. Informazio gehiago eskuratzeko deitu 943 65 10 63 edo 688 60 33 51 telefono zenbakietara.

■ **Tolosaldea.** Tolosaldeko Herri mugimenduak igandean, otsailak 5, Donostiako Kursalean egingo duten aurkezpena gonbidatu ditu eskualdeko bizilagunak. Aurkezpena 12:00etan izango da. «Azken hilabeteetan asko izan dira Tolosaldean preso eta iheslarien eskubideen alde mobilizatu diren herritarrak. Horiei guztiei, eta orokorrean, euskal preso eta iheslarien eskubideen alde dagoen oro gonbidatzen dugu He-

rrira mugimenduaren aurkezpena», azaldu dute. Herrira mugimendua pasa den urtarrilaren 7an Bilbon izandako mobilizazioaren ondotik sortu dute: «Egin Dezagun Bidea ekimenak euskal herritargoen duen babes zabala ikusirik preso eta iheslarien eskubideen alde lan egiteko behar ditugun bitartekoen inguruko eztabaida emago zela iragarri zuten, eta hemen dugu horren fruitua: Herri mugimendua», azaldu dute.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Kirikiño aisialdi taldearen 25. urteurrena dela eta erakusketak jarri dute kultur etxean otsailaren 5a bitarte. 17:30etik 20:30era bisitatu daiteke, eta bertan Inauterietako argazkiak, eta aisialdi taldearen historia ezagutzeko panelak ikusi daitezke.

■ **Ibarra.** 2011ko jaien argazkiak bitlzen dituen erakusketak ikusi daiteke kultur etxean martxoaren 2a arte. 10:30etik 13:00etara, eta 15:30etik 21:00era ikusi ahal dira irudiak. Kopiarren bat nahi duenak kultur etxeko harrieran eskatu behar du, eta kopia bakoitzeko 0,50 euro ordaindu.

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Ibarra



ADIMEN URRITASUNA DUTENEN ESPERIENTZIA

Uzturpe ikastolako ikasleek, kultur astearen ekitaldiekin jarraituz, elkartasun kilometroa irudikatu dute gaur 14:30ean, udaleko hainbat ordezkariarekin batera. Hau ez da hala ere, ekitaldi bakarra, astelehenean, esate baterako, oso hitzaldi

«interesgarria» izan zuten. Irudiko Quintina Sanchez eta Asun Jauregi hizlariak *Nik ere ondo bizi nahi dut Ibarra* hitzaldia eskaini zuten, adimen urritasuna duten pertsonen beren herrietako jardueratan parte hartu dezaketela azaltzeko. HITZA

Agurak

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



hitzak **TXOKA**



HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** pare ditu

Otsailak 5 • Igandea
18:00etan
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Blancos de Rueda
saskibaloia partida

Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95**



sarrerak

